

hurbil dagoen Erlaitz kobazuloan

bilatu eta horretarako trebatu begiak”.

Kantabrian labar-artedun zenbat kobazulo aurkitu diren kontuan izanda, eta Euskal Herrian dentsitatea txikiagoa denez, Arrizabalagak uste du oraindik geratzen direla aurkitu gabeko kobazuloak. “Ingurua antzekoa da, eta Kantabrian 8 edo 9 aldiz kobazulo gehiago daude kilometro koadroko. Horrek esan nahi du bilatzen jarraitu behar dugula”. Bestalde, Erlaitzko horma-irudiek antzekotasunak dituzte Kantauri aldeko kobazulo horietako batzuetakoekin. Antzekotasun nabariak Monte Castillokoetan ageri dira, bai Castilloko Haitzuloan bertan, bai inguruan dauden Las Chimeñas eta La Pasiegan. Euskal Autonomia Erkidegoan, Bizkaian dagoen El Rincon koba-



Uro baten grabatua. ARG.: ANTXIETA ELKARTEA.

zuloan daude antzekotasun gehien dutenak.

Arrizabalagaren hitzetan, “Gipuzkoan eta Bizkaian igiten ari garen eta egingo

ditugun aurkikuntzei esker, Paleolito garaiko ehiztari-biltzaileen lurraldetasuna ezagutzen ari gara, haien santutegiei lotuta”.




Ikusi grabatuen galeria webgunean

Litioaren jatorri leherkorra

Unibertsoko litioak hainbat jatorri ditu: zati bat Big Bangean bertan sortu zen, eta beste bat izpi kosmikoen eragindako erreakzio nuklearretan. Alabaina, Esne Bidean elementu horrek zer ugaritasun duen ikusita, astronomoek beste bi litio-iturri postulatu dituzte: erraldoi gorriak, eta novak (nano zuriaren leherketak). Lehenengoetan behatu dute litioa; bigarrenean, berriz, orain arte ez da posible izan.

Japoniako Behatoki Astronomikoko astronomoek egin dute behaketa, eta [Nature aldizkarian eman dute horren berri](#). Zehazki, berilio erradioaktiboaren seinalea detektatu dute V339 izeneko novan, leherketa gertatu eta 38-48 egunen artean. Elementu horren desintegrazioan sortzen da litioa, litio-7ren nukleoa, zehazki. Ikerketaren emaitzek adituzera eman dute orain arte uste zen baina zeresan handiagoa izan dezaketela novek litioaren sorreran.



Nova klasiko baten irudikapena. Leherketa nano zuriaren gainazalean gertatzen da (irudiaren erdialdean, eskuinean); Eguzkiaren parean edo eboluzioaren fase aurreratuago batean dagoen izar bat du bidaide (irudiaren erdialdean, ezkerrean). ARG.: JAPONIAKO BEHATOKI ASTRONOMIKOAK.